

ARAUTEGIA

ESKUBALOIA 2014

Eusko Jaurlaritzaren Kirol Zuzendaritzak, Euskadiko Eskubaloi Federazioarekin lankidetzan, EUSKADIKO XXXIII. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK antolatuko ditu 2014ko maiatzaren 24 eta 31ean Gasteizko Mendizorroztako kiroldegian. Hona hemen arautegia:

1. **JOKATZEKO MODUA**

Liga sistema, itzuli bakarrekoa.

Mailak :

Infantilak, 2000 eta 2001ean jaiotako neska-mutilak.

2. **TALDEEN OSAERA**

Taldeak honela osatuko dira: gehienez hemezortzi jokalaria, ordezkari bat eta entrenatzailea, partidetan gehienez hamalau jokalariek parte ahal izango dutelarik.

Talde bakoitzak bi kamiseta joko edukitzea beharrezkoa da, bi taldek kamiseta berdinak eramatea gerta ez dadin.

JOKO ARAUAK

Partidak hogeita bostna minutuko bi zati izango ditu, bien artean bost minutuko atsedenaldia delarik. Jokalari bakoitzak zati bat jokatu beharko du gutxienez.

Salbuespenak hauek izan daitezke:

- Lesionatutako jokalaria.(Jokalari batek atentziora jaso arren, aldaketa egiteko beharrik ez dago, jokoan bi minutuko edo gehiagoko etena ematen ez bada).
- Kanporatutako jokalaria.

Aldaketaren bat egin nahi duen taldeak, baloiaren jabe denean bakarrik egin dezake.

Baloiak 50 – 52 zm eta 315 gr ko gehiengo pisua izango du. Edozein pegamentu mota debekatzen da.

Defentsa mistoak, 6:0 eta 5:1 eta banakako defentsak debekaturik daude eta honela zigortuko dira:

- Lehen arau haustea: ohartarazpena.
- Bigarren arau haustea: bi minutuko egozpena.
- Hirugarren arau haustea: jokalaria ren deskalifikatzea.

Partidaren amaieran, talde bakoitzak bosna penalti jaurtiko ditu, berdinketarik egonez gero irizpide moduan erabiliko direnak.

3. **AZKEN SAILKAPENEAN BERDINKETA EGONEZ GERO ERABILIKO DIREN IRIZPIDEAK**

→ **BERDINKETA BIKOITZA EGONEZ GERO ERABILIKO DIREN IRIZPIDEAK**

- 1º- Talde irabazleak beraien artean jokaturiko partidan lortutako emaitza
- 2º- Talde irabazleak beraien artean jaurtitako penaltien emaitzak
- 3º- Partida denboran zehar sarturiko golen aldea.
- 4º- Partida guzietan sarturiko penaltien aldea.
- 5º- Partidan lortutako aldeko golak guztira
- 6º- Aldeko penaltiak guztira
- 7º- Desberdintze partida

→ **BERDINKETA HIRUKOITZA EGONEZ GERO ERABILIKO DIREN IRIZPIDEAK**

- 1º- Berdindutako taldeen arteko golen aldea
- 2º- Berdindutako taldeen arteko penaltien aldea
- 3º- Berdindutako taldeen artean gol gehien sartu dituenak
- 4º- Berdindutako taldeen artean penalti gehien sartu dituenak
- 5º- Partida denboran zehar sarturiko gol guzieren aldea, kanporaturiko taldea kontuan edukiz
- 6º- Penalti guzieren aldea, kanporaturiko taldea kontuan edukiz

7º- kanporaturiko taldea kontuan edukiaz gol gehien sartu dituen

8º- kanporaturiko taldea kontuan edukiz penalti gehien sartu dituen

9º- Zozketa

4. **SARIAK**

Ondorengo sariak emango dira:

Garaikur bana lehen eta bigarren sailkatutako taldeei kategoria bakoitzeko.

5. **EZBEHARREN AURREAN**

Lesio edo ezbeharrik sortu ezker nahi eta nahi ez antolakuntzak kirol eremuan izango duen arduradunarengana jo beharko da. Honek eman beharreko gainontzeko pausuak bideratuko ditu.

6. **AZKEN OHARRA**

Arautegi honetan azaltzen ez diren kontuak argitzeko, ondorengo testuak hartuko dira kontuan:

- a. 14/ 1998 LEGEA, Ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena.
- b. 125/2008 DEKRETUA, Uztailaren 1ekoa, Eskola Kirolarena.
- c. 391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketen diziiplina-araubideari buruzkoa
- d. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren 2014ko urtarrilaren 3ko AGINDUA, 2014ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXIII. edizioaren deialdia egiteko dena
- e. Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Kirol Zuzendariak, 2014ko urtarrilaren 14ko EBAZPENA, 2014ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXIII. edizioaren epaile bakarria izendatzen dena.
- f. Eskubaloiko Euskal Federazioaren Arautegiak agindutakoa

Euskara eta gaztelaniazko araudien interpretazioetan ezberdintasunak izan ezker, jatorrizko hizkuntza lehentasuna izango du.